



MASOKISMOA GAINDITUZ: GOZA DEZAKEGUN NAZIO BATEN ALDE



Politika postindentitario eta postleninistaren ajeak: masokismoa eta independentzia subordinatu neoliberalala

Krisi hotsak nonahi sumatzen dira azkenaldian: Euskal Herria ardatz duen ezker politikoan, bere burua berrasmatu nahian ari diren zenbait herri mugimendutan, euskal kulturean... Badirudi gizarte sektore oso batek ziklo bat itxi duela. Eta ondoren, egoera berrirako erreminta ideologikoen faltan ikusi duela bere burua. Egoera horri irtenbidea bilatzeko ahalegin gisa ulertu behar dira azken urteetan eztabaida ugariren iturri izan diren saiakerak independentismoa nazionalismoaren marko teorikotik harago eramateko. Artikulu honetan, Joseba Gabilondo Michigan State Universityko irakasleak ildo horretan egindako planteamendu batzuei erantzun nahi izan die, eztabaida aberaste aldera.

■ **Egilea: Joseba Gabilondo**

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIaren 2.504. zenbakiarekin banatua, 2016ko apirilaren 24an)



Abian prozesuaren hasierako argazkia. Egilearen arabera, txostenak argi uzten du, desira mailan behintzat, “alderdiak oinarri militantea gidatzeari uko egin behar diola eta entzun egin behar duela”.

FASE POSTIDENTITARIO ETA POSTLENINISTA

Badirudi fase postidentitario batean gaudela euskal abertzaletasunaren politikan. Andoni Olariagak *Independentzia Helburu* liburuari egin dion sarreran argi uzten duenez, paradigma nazionalista klasikoa (nazioa=subjektu bakar bat, identitate bakar bat) ahitu da. Imanol Galfarsorearen “euskaldunak desagertu egin behar du” edo Unai Apaolazaren “ez naiz abertzalea, independentista naiz” horren seinale dira. Jule Goikoetxearen “euskal estatu feministak” ere eredu nazionalista klasikoa krisian jartzen duen subjektu aniztasuna aldarrikatzen du, identitarioa ez den gatazka nazio barrura eramanez. Olariagaren sarrera,

zoritxarrez, 1980ko hamarkadako “narratiba jaun-en amaieraren” (*end of master narratives*) bertsio postmodernoetatik gertuegi dago, gurean krisi honek izan duen berantiartasuna bistaratuz. 1990ko hamarkadarako jada literatur kritikan argi azaldu genuen garai postnazional batean geundela (ikus nire *Nazioaren hondarrak*) baina diskurtso politikoak izan duen bilakatze eta eguneratze urri eta pobrea dela-eta, aje postnazionalak orain iritsi dira euskal eremu politikora. Filosofian ere Mitxelko Urangak amaiera nazionala azaldu zuen bere *Espektroak: euskal terroristak* (2010).

Bestalde, fase postidentitario eta postnazional honek, era berean, fase postleninista batekin kointziditu du ezker abertzalean. Tradizio leni-

“

Egiazko galdera zera da: nazioari uko egin behar al diogu, geroaldi burujabe baina ez oso argi baten truke? Erantzuna ez da. Geroaldi buruaski eta ‘hobeto bizitako’ batean, EAJ neoliberal eta globalizatu batek izango luke agintea. Eta beraz beste erantzun oso desberdin eta baikorragoa sortu behar dugu”

nista batetik dator alderdiak —eta bertan alderdiko elite gidariak eta/edo talde armatuak— borroka politikoa pentsatu, planifikatu eta oinarri militantei helarazteko ahalmena eta erantzukizuna duen paradigma politikoa; ezker sozialistaren politika definitu du XX. mendean. Arnaldo Otegiaren *El tiempo de las luces* irakurritz gero (“KAS alternatibarik ez”) edo azken hauteskunde kalapitatsuen ondotik oraindik ere era leninista batean hedatutako *Abian* txostenak argi uzten du, desira mailan behintzat, alderdiak oinarri militantea gidatzeari uko egin behar diola eta entzun egin behar duela, erabakitze dinamika behetik gora berregituratuz (*Abian* nork idatzi duen zehazki ez du dokumentuak esaten; oinarriei, entzun beharrean, dituzten kezketatik abiatuta txosten bat behetik gora idazteko, aurrez “goitik” idatzitako txostenarekin ados datozen ala ez galdetu zae, goitik-beherako dinamika erdi-leninista batean).

Konfluentzia postidentitario eta postleninista honen ondorioz, ezkerrean afektibitate ezkorrez definitutako giro bat hedatu da: nekea, frustrazioa, etsipena, ezulertua, eta, batez ere, desorientazioa. Kexak ugari izan dira: “Horrenbeste

urte borrokatu eta gero, ‘euskal nazioa’ zakarretara bota behar al dugu, oraindik ere argi ez dagoen proiektu independentista baten alde?”. Izan ere, ezkortasunak definitzen ditu Galfarso-ro, Apaolaza eta Goikoetxearen ereduak: zegoe-na ezeztatuz definitzen dituzte beren proiektuak eta ez dira gai geroaldi politiko argi bat azaltzeko. Galdera oinarritzko bati ez diote erantzunik ematen: “Azkenean, independentzia zertarako, ez bada *euskal* nazioa askatzeko?”. Joxe Azurmendik eman du proposamen hauen aurkako erantzun klasikoena: “Nazioa objektiboki deskribatu daitekeen zerbait da edo ezer ez da”. Proiektu ezkor edo nazio-aurkako hauek, zer eskaintzen duten era baikorrean galdetuz gero, itxuraz oso neoliberalak ematen duen erantzun bat eskaintzen dute: estatu euskaldun burujabea behar dugu *hobeto bizitzeko*. EAJk jada diskurtso hori monopolizatu du, berorren azken funts neoliberalak ulertu baitu. Eta emaitza hobeekin gainera: “Egun Euskal Herrian bezala ez da inon kudeatzen”. Mezu neoliberal eta azken batean kapitalista-zale honek dagoeneko mezu independentista kooptatu du, izan ere, “hobeto bizitzea” eta “hobeto kudeatzea” loturik daude gaur egun globalizazioan, “hobe bizitzeak” zer esan nahi duen zehazki definitzen ez baduzu behintzat. Hala, EAJk eskaintzen duena zera da: ia esfortzurik gabe (boto bat lau urtero), eta itxuraz gatazka politikorik gabe, hobeto bizitzeko aukera. EH Bilduk ez du kudeatze politika hori urtetan egin izanaren esperientzia, udaletan izan ezik, EAJren antzera; Gipuzkoako Aldundian lau urtez kudeatutako gobernuaren esperientzia motzegia da. Hala, EAJk proposatzen duena neoliberalismo ez hain gaizto bat, kapitalismo onberago bat da, eta euskal independentziari eduki eta zentzu zehatzago bat ematen ez zaion bitartean, jendeak, globalizazio kapitalistak sortutako beldur giroak eraginda, botoa alderdi horri emango dio. Noizbait gerora, EAJren itxura erabat neoliberalak azaleratuko da, baina oraingoz anbiguotasun ideologiko horretan oinarriturik iraun dezake urtetan (“hemen bezala ez da inon kudeatzen > bizitzen”).

Egiazko galdera zera da: nazioari uko egin behar al diogu, geroaldi burujabe baina ez oso argi baten truke? Eta erantzuna *ez* da. Geroaldi buruaski eta “hobeto bizitako” batean, EAJ neo-liberal eta globalizatu batek izango luke agintea. Eta beraz beste erantzun oso desberdin eta baikorragoa sortu behar dugu. Horretarako, lehenik, historian eta teoria politikoan barneratu behar gara, *impasse* postindentitario, postnazional eta postleninista honetatik ateratzeko (eta “post” aurrizki gorrotagarri hauek azkenik historiaren zakarrontzira bota ditzagun).

DIFERENTZIA ETA KAPITALISMOA: ERABILTZE ETA TRUKE BALIOA GLOBALIZAZIOAN NOLA SORTZEN DEN

Gai honen erro historikoa ulertzeko, marxismoak eta nazionalismoak izan duten talka historikoa entelegatu behar da, izan ere arazo hori ez zen inoiz konpondu eta orain berriro ere itzultzen ari da mamu bazterreratu eta erreprimituen indarrak. Sasoian, marxismoak zioen iraultza proletarioa zela borroka garrantzitsu eta esanguratsu bakarra. Iraultza hedatu ahala, nazioaren arazoa aire hutsean desagertuko omen zen. Benedict Andersonek jada 1983an onartu zuen bezala (*Imagined Communities*), marxismoaren errakuntza nagusia eta oraindik ere ikasgai pendiente nazionalismoa da.

Egun, izpiritu bera eguneratuz, Alain Badiou edo Slavoj Žižek bezalako ezkerreko filosofo politikoek nazionalismoarekiko ezeztapen marxista hedatu dute edozein diferentziarekiko. Nazioa, etnia, sexua, generoa eta arraza bezalako diferentziak bigarren mailakoak direla aldarrikatu dute biek ala biek –eta Jacques Rancièrek ere bai, beste maila batean–. Badiouren “*indifférence à la différence*” (*L’être et l’événement*) ezagunak laburbiltzen du jarrera hori. Bi filosofoek diote multikulturalismo edo kultur-aniztasunaren izenaz bateratu diren diferentzia guzti hauek kapitalismoak jada barneratu eta kooptatu dituela, eta beraz,



Slavoj Žižek filosofoa Iruñean 2010ean. Egilearen ustez, esloveniarraren ildotik jarraituz gero, subjektu politikorik gabe geratzeko arriskua dauka Euskal Herria ardatz duen ezkerrek.

kapitalismoaren esplotaziorako tresna bihurtu direla. Žižek, gainera, esaldi batean kaptatu du kultur-aniztasunaren aurkako pentsaera hau: “Kultur-aniztasuna arrazismo forma bat da”, alegia, kultur-aniztasunak defendatzen dituen subjektu horiek are gehiago zapaltzen ditu (*The Ticklish Subject*). Galfarsorok gure artean eztabaida harantzago eraman du, esanez diferentzia horiek kapitalismoak sortzen dituela (“Etnizitatea, kapitalismoa, euskara eta hegemonia”, *Lapiko kritikoan*). Berak aipatu ez badu ere, honetan Michel Foucaulten tesi bat defendatu du, Judith Butlerrek ere onartu duena: estatu kapitalistak

sortzen dituela subjektuak, eta haien ordezkari, defendatzaile eta bermatzaile bihurtzen dela ondorean (*Gender Trouble*).

Honetan filosofia (post)marxista eta foucaultiar-
rrak erabat erraturik daude, azken batean euskal-
dunak, subjektu politiko gisa, kapitalismoak (edo
estatu kapitalistak) sortu dituela inferitu behar
baita, eta beraz euskalduntasuna bera kapitalis-
moak erabiltzen duen tresna edo teknologia dela,
gu are gehiago zapaldu eta kooptatzeko. Badiouk, azken aldian, Frantzian etorkin atzerri-
tarrekin (postkolonialekin) izan dituen esperien-
tzien ondoren, zertxobait aldatu du bere iritzia
diferentziaren alde (diferentzia arrazial eta etni-
koaren alde). Alabaina, azken batean, Zizek,
Badiou, Foucault (eta Butler bera neurri batean,
ikus Joseph Massad “Reorienting Desire”) dife-
rentziaren etsai dira eta beraz diferentziaren aur-
kako filosofo hauek ez digute laguntzen gure
eztabaida postnazional-identitarioan. Maila
horretan, argi utzi behar da diferentziaren aurka-
ko filosofoak salatu eta arbuiatu behar ditugula
Euskal Herrian, geroaldi politiko bat izango
badugu. Proklama bezala beraz, esan dezagun,
Zizek eta Badiou akabatu behar ditugula (sinbo-
likoki jakina), Euskal Herri postnazional eta
buruaski bat izango badugu.

Arrazoiak bi motatakoak dira. Alde batetik, mar-
xismoak, oinarrian hegeliarra delako, beti ulertu
du kapitalismoa prozesu historiko unibertsal
bezala. Hots, Karl Marxen arabera kapitalismoa
lehenik mundu osora hedatu behar zen, gizate-
riak (proletalgo unibertsalizatu batek) gero kapi-
talismoa gainditu eta komunismoa inposatuko
bazuen. Marxek, hala, Indiaren kasuan zioen
herri hari gertatutako gauzarik onuratsuena kolo-
nizazio britainiarra zela, azken batean kapitalis-
moaren sarrera azkartu baitzuen Indian (“The
British Rule in India”). Fernand Braudel eta
Annaletako historiografia marxistaren ondorioz,
Marxen elaborazio hegeliar honek beste maila
filosofiko bat lortu zuen, izan ere marxismo
horren arabera, salgaia edo merkantzia bihurtu

zen lehenengo kategoria historiko unibertsala,
gizateria historia bakar baten subjektu unibertsal
bihurtu zuena: denak balio kapitalista zuen mun-
duan sartzen zen gizateria. Hala, marxismoaren-
tzat, salgaia bada kategoria unibertsal bakarra,
beste edozein kategoria (nazioa, generoa, sexua,
arraza, hizkuntza...) bigarren mailako edo
sekundario bihurtzen da eta beraz bere partiku-
lartasun ez-unibertsalak ukatzen dio estatus his-
toriko-politiko eraldatzailea. Beraz guztiok gara
kapitalista, salgaiaren bidez mundu historia glo-
balean bizi garenak: gure estatus euskalduna edo
buruaskia bigarren mailakoak dira.

Beste aldetik, 68ko maiatzeko iraultzan diskurtso
marxista honek bigarren fase bat ezagutu zuen eta
ondorioz, bigarren arrazoi mota bat sortu zuen
marxismoaren indiferentziarentzat (edo giza dife-
rentziekiko indiferentziarentzat). Hain zuzen,
momentu honetan bestelako diferentzia ez-kapi-
talistak sartu ziren borroka politikoan. Deskoloni-
zazio prozesu independentistek argi utzi zuten,
batez ere Frantz Fanonen eskutik, arraza ere dife-
rentzia unibertsala zela, gizateria guztia baitzego-
en kolonialismoaren zatiketaren alde batean edo
bestean (*Les Damnés de la Terre*). Feminismoak ere,
Luce Irigaray eta Monique Wittigen eskutik,
feminismoaren erreduzitu ezintasuna aldarrikatu
zuen (*Speculum de l'autre femme*; *La pensée straight*).

Alabaina, zenbat eta aldarrikapen erreduzitu ezin
gehiago egin, argiago geratu zen aldarrikapen
hauen guztien azken zeruertza estatua zela.
Borroka horiek, nahiz eta unibertsaltzat izan
beren buruak, estatu barnean egin ziren eta estatu
dinamika bati erantzunez: estatuaren bermea edo
errefusapena jaso zuten heinean izan zuten arra-
kasta politikorik. Feminismoa azken batean fran-
tsesa zen, eta feminismoak estatuka eratu zuen
bere burua eta estatuka borroka egin. Iraultza
prozesu antkolonialak ere Kuban, Nikaraguan
edo Nigerian gertatu ziren eta estatu logika baten
arabera. Hala, kapitalismoak estatua erabili du
borroka horiek guztiak bermatu edo/eta koopta-
tzeko eta azkenean estatuaren hedapen bihurtu



Estatuak kultur-aniztasuna bermatuz borroka horiek kooptatzeko gaitasuna erakutsi du. Hortik kultur-aniztasun ofizialak filosofo post-marxisten artean sortzen duen mesfidantza.

ditu (emakumearen aldeko institutuak, elkargo edo autonomia estatua...). Hortik kultur-aniztasun ofizialak sortzen duen mesfidantza filosofo postmarxisten artean. Borroka hauen prozesu estatalizatzaileraz azkenak Bolivian gertatu dira (eta beste hein batean Kolonbian, Brasilen eta Venezuelan) non estatuak klase pobreak, gehienetan arrazialki markatuak, bihurtu dituen bere estatu-politika aurreratzaileen subjektu (“marea arrosa” deitu zaiona). Han ere mundu-ikuskera indigena hartu du estatuak bere politika eta konstituzioa definitzeko (“*el vivir bien*”), eta pobrezia mailak aldatu badira ere, esplotazio sistema nagusiak ez (kapitalismo andetarra/ *capitalismo andino*; ikus Silvia Rivera Cusicanqui, John Beverley eta García Lineraren gogoetak).

Ondorioz, kapitalismoaren edo salgaiaren balio unibertsala ez duten borroka hauek guztiak estatuaren logika kultur-anitzak jan dituela ematen du eta, era berean, klase proletarioaren historia ere desagertu dela, klase hau ere “kultur-aniztu” baita bere klase nortasuna galduz. Ondorioz, ezkerrek bere politika agenda galdu du eta subjekturik gabe geratu da. Hala, eta erreakzio bezala, egungo filosofo marxistek kultur-aniztasuna salatu dute eta, aldiz, oraindik ere borroka unibertsal bakarra kapitalismoaren aurkakoa dela defendatu dute. Alabaina, diferentzia ukatzen duten filosofo hauen borroka antikapitalistek kontraesan handi bat dute: ez dute subjektu politikorik. Hots, ez dago kapitalismoaren aurka altxatuko den subjekturik, izan ere subjektu oro

“

Arazoa diferentzien politika aurrerakoi bat eratzea da, non nazioa, sexua, generoa edota arraza bezalako diferentziak bihurtuko diren estatu neoliberalaren aurkako politika global baten abiapuntu. Alain Badiou eta Slavoj Zizek abandonatu behar ditugu, subjektu politikorik gabe uzten gaituzte, ‘martzianoen zain’, kapitalismo global baten zapalkuntza sexista, arrazista eta antietnikoek aurrera segitzen duten bezala”

egun diferentziak markatzen du eta beraz ez da unibertsala: alegia, filosofo hauentzat feminismoa ez da borroka garrantzitsua eta unibertsala, halaber borroka nazionalista eta independentzia-zalea, edo borroka antiarrazista eta etorkin-zalea. Borroka guzti hauek esanguratsu dira bakarrik kapitalismoari jazartzen zaizkien heinean eta beren borrokaren erro edo oinarri historiko-diferentzialari uko egiten dioten heinean (emakume bat antikapitalista da ez emakumea delako, baizik eta kapitalismoaren aurka dagoen subjektu diferentzia gabea delako). Hala, eta Ernesto Laclaren hitzetan, Zizek “martzianoen zain” geratu da, hots, ez dagoen subjektu politiko baten zain, eta gauza bera Badiou, ez dagoen klase proletario bat noiz sortuko zain, Joan Bataiatzailearen fedez etorkizun hurbilean etorriko dela iragarritz.

Euskal Herrian ere eztabaida horrek izan du bere ondorioa. Argalak eta enparauek, Franco

hil aurreko ETAre eztabaidetan, euskal langileria osoa, bertakoak eta etorkinak, euskal subjektu iraultzailearen parte zela aldarrikatu zuten goiko akats bera errepikatu zuten. Hain zuzen euskal langile denak (bertakoak eta etorkinak) subjektu proletario edo kapitalismo-aurkako baziren, ez zegoen arrazoirik estatu euskaldun buruaski bat sortzeko, azkenean euskalduntasuna trantsiziozko kategoria sekundarioa baitzen, komunismo unibertsal eta nazio-gabekorako baten bidean. Eta beraz ETak eta independentziaren aldeko mugimenduak poliki-poliki langileria edo klase proletarioaren kategoria saihestu badu, inguruko estatu guztiek adoptatutako politikei jarraiki zaielako izan da, gatazka proletarioa estatu arazo bihurtuz, hots arazo nazional bat. ETak 60ko belaunaldian konpontzen jakin ez zuen arazoak bere bidetik segi du eta, azkenean, gatazka politiko ororen patua jasan du: estatilizazioa, estatu mailan konpon daitekeen uste ustela, bertatik independentziaren zentzu huts edo zentzugabea gaur egun.

Marxismoak ez du jakin diferentzien politika sozialista bat sortzen eta, ondorioz, subjektu politikorik gabe geratu da. Bi izan dira honen aurka proposatu diren ereduak, baina biek ala biek ez dute estatua gainditzen jakin zeruertz politiko gisa. Alde batetik, Laclauk eta Chantal Mouffek proposatu dute hegemonia gramsciarren eredua, estatu barneko subjektu politiko diferente guztien politika bat eraikitzeko, kapitalismoaren eta salgaiaren balio unibertsalari uko eginez (gure artean Mario Zubiagak hedatu duena). Alabaina, eredu horretan eta Laclauk proposatu dituen teorizazio berriagoetan (*On Populist Reason*), zeruertz politikoa oraindik ere estatua da. Are, neoliberalismo- eta globalizazio-aurreko estatu tradizional edo klasikoa da Laclauk buruan duena. Eta zentzu horretan, Laclauk ez dio erantzuten egun estatuak duen funtzio berriari globalizazio neoliberalen: diferentzia politiko guztiak zapaltzea eta kapitalismo globalarentzat kudeatzea eta esplotatzea.

Beste aldetik Michael Hardt eta Antonio Negrik, biopolitikaren kontzeptu foucaultiarra erabiliz, diferentzien politika global bat proposatu dute kapitalismo neoliberal eta globalaren kontra (*Common Wealth*). Alabaina, beraiek proposatzen duten diferentziaren ulermena lehen munduko klase ertain edo garaiena da (azken batean unibertsitaterak aseratsarena) eta diferentzia guztiak homogeneizatu, estatuak eta merkatuak bermatutako kultur-aniztasun ofizialaren arazoa edo kontraesana errepikatu dute. Estatuak barneratu eta kooptatu dezakeen diferentzia politika bat proposatu dute, estatuak eta globalizazioak jokatzeko duten dinamika ez baitute aintzat hartu. Hots, Hardt eta Negriren ereduak, “klase proletario diferentzial hedatu” batena da, “klase proletario kultur-anitza” baina azken batean paradigma marxista klasikoaren arabera, eredu proletarioaren arabera, eraikia. Berauen ustea da, klase proletario kultur-anitz eta global hori kapitalismoaren aurka altxa daitekeela maila globalean, berriro ere estatu neoliberalaren funtzioa kontutan hartu gabe. Francis Fukuyamak *The New York Times*entzat egin zuen erreseina batean zioen bezala, bi filosofo hauek baldin bada ezkerak duen eredurik iraultzaileena, kapitalismoak lasai lo egin dezake.

Beraz, berriro ere arazoa diferentzien politika aurrerakoi bat eratzea da, non nazioa, sexua, generoa edota arraza bezalako diferentziak bihurtuko diren estatu neoliberalaren aurkako politika global baten abiapuntu. Hots, Badiou eta Zizek abandonatu behar ditugu, izan ere, kultur-aniztasun ofiziala estatuak kooptatu du, baina zapalkuntza diferentzialek (generozkoak, arrazialak, etnikoak, hizkuntzazkoak, nazionalak...) segitzen dute eta, seguruenik, areagoturik. Beraz erantzun ezkorrek (“kultur-aniztasunari ez”) ez dute ezer konpontzen eta subjektu politikorik gabe uzten gaituzte. Hots, “martziar noen zain” geratzen gara, esaldi laclautarra erabiltzekotan, kapitalismo global baten zapalkuntza sexista, arrazista eta antietnikoek aurrera segitzen duten bezala.

EZKERRAREN POLITIKA MARXISTA UNIBERTSALISTAREN DINAMIKA MASOKISTA-LENINISTA

Goiko ereduak badu zerikusirik zuzena Euskal Herrian sufritzen dugun egoera ezkorrearekin; nekeak, frustrazioak eta etsipenak eragiten dituen gure momentu honekin. Izan ere, eredu marxista unibertsalistak eragiten duen politika mota leninista da, liderraren (HB, ETA, KAS alternatiba) obediencia militanteak eragiten duena. Marxismoaren politikan alderdi komunista da historiaren dialektika unibertsala bere konplexutasun historikoan ulertu dezakeen bakarra; oinarriak edo baseak segi baino ez dio egin behar. Politika hau masokista da eta egungo egoera ezkorreara garamatza. Behean esplikatuko dudako bezala, diferentziaren eta unibertsaltasunaren politikek bere osagai libidinala, gozamenekoak, dute. Eta politika leninistak gozamenari uko egitea eskatzen dio, masokismo politikokoaren alde.

Egundaino euskal politika kartesiarra izan da, azken batean bere subjektuak zuten intelektuak definitzen dituela pentsatu izan baitu (bertatik euskal estatu burujabe baina ez-nazional baten proposamen “hutsa”). Hala, proposamen guztiak arrazionalak izan dira eta arrazionaltasunaren izenean defendatu dira. Baina, esperientziak dakigun bezala, politikak badu bere alderdi libidinala, orain artean Euskal Herrian kontutan hartu ez dena: sufrimendua, gozamina, masokismoa, eta abar. Are, alderdi libidinala kartesiar-arrazionala bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuegok dela ulertzen ez dugun artean, erraturik ibiliko gara. Politika libidinal bat behar da. Hurrengoaren lehen gogoetak baino ez dira.

Orain artean gozamen nazional-politikoari uko egin zitzaiokeen, politika masokista batean biziz, “euskal nazioa” zeritzon subjektu baten izenean: guk etsiko diogu gure gozamenari, gero subjektu nazionalak (gure seme-alabek) goza dezan. “Eusko gudariak” edo Arestiren “Nire aitaren etxea” ideologia horren eredu onak dira. Baina

orain, gainera, politika independentzia-zaleek euskal nazioari uko egitea eskatu diguten hone-tan, politika masokista-leninista bere mugara eramán dute: “Etsi zuen gozamen politikoari oraindik ere zer izango den ez dakigun estatu euskaldun baten izenean” (eta azken batean euskalduna ere izango ez den estatu baten izenean). Agindu hau era leninista batean eman dela kontutan hartuta, oinarri edo base politikoak, hots, boto-emaileek, planto egin diote: “Ez diogu gure gozamen euskaldunari uko egingo euskalduna izango ez den estatu baten izenean, estatu huts baten izenean, eta are, hobe biziko garelá ere ziurta ezin diezagukeen estatu baten izenean” (ikus Hasier Etxeberriaren “Abertzaletasunaz eta aeronautikaz” eta Santi Leoneren “Estatu tekniko bat utzi eta ikurrinak sukaldeko trapu bihurtu”). Hor oinarri politikoak uko egin dio bere gozamena era masokista batean gozatzeko agindu leninista-marxistari. Askok, gainera, etsita, Podemos bezalako alderdiei botoa eman die. Bai, hor gozamen euskaldunari uko egitea eskatu zaie: erreferendum bat agian, baina independentziarik ez, Madrilen Pablo Iglesias *patriota español* izateaz harro baitago. Baina behintzat gozamen sozial eta ekonomiko baten proposamen zuzen eta ez-leninista egin zaie: Pablo Iglesias azaldu ere ez zen egin Euskal Herrian, Leninen mamua are gehiago disolbatuz (hots, Iglesiasen absentziak lagundu egin zion Podemosi Euskal Herrian). Gazteek, batez ere, era baikor batean erantzun diote Podemosen proposamenari: “Bai, ahal dugu, bai, ekonomia eta gizarte egoera aldatu ahal dugu, euskalduntasunari uko egin behar badiogu ere, edo gure gozamen euskalduna era masokista batean atzeratu behar badugu ere”.

Leninismoak eragindako gozamenaren zentzu masokista ulertzeko, berriro ere EAJri begiratu behar zaio. Proposatu dituen formula politiko ez-indenpendista guztiak, eta batez ere azkena, “nazio forala”, anbiguoak, esanahi zehatz gabekoak, eta azken batean atzerakoiak badira ere, gozamen ez-masokista bat eskaintzen dio boto-

“

**Politika postnazional batek,
lehenengo eta behin,
uko egin behar dio masokismo
leninistari (‘liderrari obeditu, zuen
gozamenari uko eginez, geroko
estatu nazional baten izenean, zuen
seme-alaba euskaldunago eta
zoriontsuagoen izenean’) eta
masokismo postidentitarioari (‘zuen
gozamen euskaldunari uko egin
euskalduna izango ez den eta agian
hobeto bizitzen lagunduko digun
estatu huts eta gozamen-gabe
baten alde’)**”

emaileari: “Ez ezeri uko egin, zuen lehenaldi nazional-foralarekin harro bizi, subjektu kuasi-soberano izan eta, gainera, gozamen hori ondo kudeatzen dugula frogatu dugunez, eman botoa, hobeto biziko baitzarete gurekin”. EAJk arazoak gazteekin ditu, gazteek kudeaketa neoliberal honen abantailak pertsonalki, beren buruengan, ikusten ez dituzten neurrian. Baina EAJk politika libidinal ez masokista bat eskaintzen du (neuroti-koa dena, baina hori azaltzeko ez dugu lekurik).

Beraz politika postnazional batek lehenengo eta behin uko egin behar dio masokismo leninistari (‘liderrari obeditu zuen gozamenari uko eginez, geroko estatu nazional baten izenean, zuen seme-alaba euskaldunago eta zoriontsuagoen izenean’) eta masokismo postidentitarioari (‘zuen gozamen euskaldunari uko egin euskalduna izango ez den eta agian hobeto bizitzen lagunduko digun estatu huts eta gozamen-gabe baten alde’).



“Hauteskunde kanpainan Pablo Iglesias azaldu ere ez zen egin Euskal Herrian, Leninen mamua are gehiago disolbatuz (hots, Iglesiasen absentiak lagundu egin zion Podemosi Euskal Herrian)”.

Egun badakigu arazoa *estatua* dela eta beraz argi daukagu subjektu nazionalista tradizionalaren ereduak ez duela gerorik. Ezin dugu independentzia lortu euskal subjektu homogeneo eta bakar baten izenean, estatuak, hain zuzen, diferentzia guztiak bereganatu eta euskalduntasunaren izenean zapalduko baititu. Estatu bat behar badugu, eta estatu horrek neoliberalismo globalaren logika ekonomikoaren izenean zapalduko ez bagaitu (ez dago dirurik hiritarrentzat, bankuentzat bakarrik), horrek beste politika bat eta beste gozamen ez-masokista bat eskatzen du: estatu bat behar dugu gure diferentzia guztiak gozatzen utziko diguna eta, hala, globalizazioaren eta neoliberalismoaren borrokan lagunduko diguna.

Hala, estatu horrek *euskalduna* izan behar du, baina baita etorkina, emakumeena, gazteena, sexu guztiena, arraza guztiena... muga bakar bezala besteen diferentzien errespetua litzateke

eta diferentzia horien gozamen globala (maila horretan estatu honetan gozamina neurotikoa litzateke, baina ez masokista). EAJk hobeto kudeatuko duen sasi-estatu sekula ere erabat ez-buruaskia eskaintzen badigu hobeto bizitzeko, ezkerak aldiz gure diferentzia historiko guztiak gozaraziko dizkigun euskal estatu bat eskaini beharko luke, non gure gozamina berme bihurtuko den neoliberalismo globalaren politika zapaltzaileen aurka.

NAZIO FORAL KUDEATUA VS. NAZIO SUBALTERNO GLOBALA

Horrela ulertuta, gure historia –eta historia horretatik izoztu ditugun zeinu itxuraz egonkorrak (kultura folklorikoa eta etnikoa)– ez da bakarra, egonkorra, hegeliarra eta beraz, ezta nazionala edo identitarioa ere. EAJren azken for-

“

Ez dugu euskal nazioa hustu beharrik. Beste historia postnazional eta postidentitario batean, ‘euskal nazio’ hitzak historia askozaz konplexu, heterogeneo eta anitzagoa eskaintzen digu gure gozamen politikorako, eliteak antagoniaren beste aldera, etsaiaren aldera, mugituz beren jarraitasun historikoan”

mulazio ideologikoak, “nazio foralak”, ezkututzen duena da, XVI. mendetik aurrerako euskal historia zera dela: elite foruzale batek gehiengo subalterno edo klase behereko bat zapaldu eta esplotatu izanaren historia, horretarako euskalduntasunaren diferentzia estatu espainiarraren aurrean argudiatuz (Espainiako biztanle eta hizkuntza zaharrenak, kaparetasun unibertsala, foruen izaera paktista... Iparralde ez litzateke dinamika honetan sartuko eta errepublikanismo jakobinoaren historia aztertzea eskatuko luke). Esplotaziozko historia postnazional honetan, euskara ez da gure “hizkuntza nazionala”. Euskarak, hizkuntza ez-nazional bezala, ez luke elite foral baten joko bikoitza zilegituko: klase subalternoak zapaldu eta klase horien “identitatea” erabili beren buruak zilegitzeko, koroa/estatu gaztelau/espainiarraren aurrean. Euskara, hain zuzen, zera litzateke: gehiengo subalterno batek erabili duen hizkuntza esplotazio horri aurre egiteko eta esplorazio horren kontra bizitzeko. Eta beraz euskara esplotazio baten kronika postnazional ez-identitario baten hizkuntza da. Eduardo Apodakaren proposamena (*Identitatea eta anomalia*) bide horretan doa, diferentziak diferentzia.

Baina euskara ez da bakarria Euskal Herrian, beste esplotazio batzuk ulertzeko eta egituratzeko balio du halaber. Beraz euskarak edo euskalduntasunak ez du eskusiboki hiritar euskalduna definitzen, beste esperientzia ez-euskaldun askoren hizkuntza eta erreferentzia bihurtzen da, etorkinak barne. Hots, Euskal Herrira etorritako etorkin esplotatuen gaztelania ere euskara forma bat bezala ulertu beharko genuke, eta beraz beste euskalki bat bezala onartu. Gaztelania subalterno hori euskaldun etorkin askoren historiaren hizkuntza da, eta hala onartu beharko genuke eta gozatu. Hots, gaztelania hori (eta askotan asturiera, aragoiera, eta beste hizkuntza subalterno etorri berriagoak ere, hala nola, arabiera) ez da estatuko instituzioek ofizialki erabili duten bera; horiek bi hizkuntza desberdin dira eta horrelaxe berezi beharko genituzke. Hala ulerturik, euskal historia subalterno eta anitz baten esplotazioaren historia eta historia horrek eman duen kultura bihurtuko litzateke: gure “etnia” eta gure “oroi-men historiko” gozagarria, hots, gure nazioaren esentzia ez-bateratu, historiko eta politikoa. Eta historia horrek oinarri eta erroak ematen dizkigun heinean, era berean eskaintzen digu egun klase euskaldun/basko elitezko baten kolaborazioarekin berregituratzen ari den esplotazio neoliberal-globala ulertzeko bidea. Historia hau bai disfruta dezakegu. Era berean bi gauza eskaintzen dizkigu: egungo esplotaziorako narratiba bat eta jarraitasun historiko bat. Hots, gozamen politikoa ematen digu.

Hala, ez dugu euskal nazioa hustu beharrik. Beste historia postnazional eta postidentitario honetan, “euskal nazio” hitzak historia askozaz konplexu, heterogeneo eta anitzagoa eskaintzen digu gure gozamen politikorako, eliteak antagoniaren beste aldera, etsaiaren aldera, mugituz beren jarraitasun historikoan (euskal ahaide nagusiak > kaballeritoak > EAJko klase neoliberal elitezkoa...). Eta azkenik, historia honek esanahia ematen dio bestela huts eta zentzugabekoa izango litzatekeen estatu huts bati, hots, izenez bakarrik euskalduna izango litzatekeena (euskal



XIX. mende amaierako meatzeetako langileak Gallartan. Egilearen ustez, posible da esplotaziozko historia postnazional bat eraikitzea eta bertan euskara gehiengo subalternoaren hizkuntza litzateke.

izan nahi duen eta ezin duen estatua). Eta are, estatu hori ulertarazten lagunduko liguke, ez helburu eta helmuga bezala, baizik eta historia luzeago eta gozagarriago baten beste fase bat bezala, inondik ere estatuarekin amaitzen ez dena, bai baitakigu estatua ere instituzio zanpataile bihurtzen duela globalizazioak. Historia subalterno eta diferentzial horrek zer itxura izan dezakeen esplikatzen saiatu naiz nire Before Babel liburuan, abiapuntutzat literatura hartuz, baina azkenean euskal literatura ez-nazional baina gozagarri eta diferentzial baterako oinarri postnazional eta ez-identitarioak ezarriz.

Azkenik abiapuntu honek beste arazo bat argitzen laguntzen digu: nor izango da estatu horren buru? Ezkerrak oraingoz estatuaren eredu libera-

la ezarri nahi du (demokrazia, botere banaketa...). Baina estatu sortu berri edo europartu askotan (Kosovo, Bosnia-Herzegovina, Polonia, Hungaria...) ikusten den bezala, historiak izugarrizko pisua du eta historia ulertzen ez bada, demokrazia liberal itxura duen baina autoritarioa den estatu batean amai dezakegu.

KAPITALISMOARI ERRESISTENTZIA ETA BERLURRALDETZEA, GAIN BALIOAREN LEHENENGOTASUNA

Entelegatzeko zergatik gure diferentzien zapalkuntzaren historiak kapitalismoaren kontrako borrokan lagunduko digun eta borroka hori gozagarri egingo duen, berriro ere teoria marxista bir-

“

Kapitalismoa etengabeko berlurraldetze joko batean dago. Hala, gure diferentzia historikoek kapitalismoa gaingitzen dute: kapitalismoak ezin du giza diferentzia menderatu, metatu eta azken batean erabat esplotatu. Ez dago beraz progresuzko azken momentu bat non proletalgo global batek burgesia globala eraitsiko duen. Kapitalismoa mugatua eta itsua da, eta beti ere giza diferentziaren eraketari segitzen dio eta diferentzia honekiko bere burua berregituratzen eta berlurraldetzen”

bisitatu behar dugu. Hasieran eztabaida teorikoe-gia irudi badezake ere, beharrezkoa da ezkerren egoera politiko bidegaldua zuzentzeko. Egun, ezkerren zeruertz ideologikoak sasoian sozialdemokrazia zenaren ongizate estatuko lorpenei arrakastarik gabe eusteko saio izaten amaitu du. Egun ezkerrek sozialdemokrazia klasikoaren itzal lotsagarri bat izaten amaitu du (helburua Suedia adabakitu bat beste estatu gehienetan ezartzea da, Suedia, bien bitartean, neoliberalizatzen ari denean). Nahikoa da EH Bilduko 2015ko programari edo *Abian* txostenari begiratzea.

Arazoa marxismoaren hasieran dago. Marxismoarentzat gauzek erabilera balio (*use value*) bat badute ere, kapitalismoak ez du erabilera balio hau hartzen abiapuntutzat, baizik eta truke balioa (*exchange value*), hots, salgaiek elkar trukatzeko duten balioa, zeina salneurriaren bidez neurtzen den,

hots, diruaren bidez. Eta azkenik marxismoak proposatzen du gizakumeak bere lan indarra saltzen dionean salneurri baten truke klase burgesari, klase honek ez diola egiazko truke balioa ematen baizik eta beti ere diferentzia bat (gainbalioa edo plusbalioa, *surplus value*, *Mehrwert*) eskuratzen duela. Azken batean kapitalismoaren joera gainbalio hori gehitzea litzateke, kapitalismoaren azken forma kapitalismo finantziala izanik (dirua bera saldu eta erosiz gainbalioa metatzen duena). Hala, erabilera balioa desagertu egiten da kapitalismoaren historiari marxismoan. Gilles Deleuze eta Felix Guattari lirateke seguruenik kapitalismoaren ulerkera ortodoxo hori gehien kritikatu dutenak eta beste eredu bat ematen saiatu direnak 1980ko hamarkadan.

Eredu deleuziar-guattariarraren arabera, kapitalismoa ez da truke balioaren gainean eratzen baizik eta erabilera balioaren arabera. Izan ere, kapitalismoak ez du norantzarik eta jomugarik: krisizko edo katastrofezko mugimenduan hedatzen da –ez dago amaiera iraultzaile hegeliarrik–. Beti ere kanpotik edo lehenalditik datozen ihardun aktiboak, objektuak eta balioak erabili eta abandonatzeko joera du (turismoa, hirietako zona jentrikatuak, nekazaritza organikoaren industrializazioa, *Game of Thrones* oinarri mediebalista, moda gehienak...). Kapitalismoa etengabeko berterritualizazio joko batean dago. Hala, gure diferentzia historikoek kapitalismoa gaingitzen dute: kapitalismoak ezin du giza diferentzia menderatu, metatu eta azken batean erabat esplotatu. Ez dago beraz progresuzko azken momentu bat non proletalgo global batek burgesia globala eraitsiko duen. Kapitalismoa mugatua eta itsua da, eta beti ere giza diferentziaren eraketari segitzen dio eta diferentzia honekiko bere burua berregituratzen eta berlurraldetzen (*reterritorialisation*).

Hala Deleuzeren eta Guattariren proposamena diferentzia horiek areagotzea da, eta diferentzia horien desira eta gozamena areagotzea, kapitalismoa desegin edo disolbatu arte, hots diferen-



Gilles Deleuze eta Felix Guattari filosofoak dira marxismo ortodoxoa gehien kritikatu dutenetakoak. Haien arabera, kapitalismoa ez da truke balioaren arabera eratzten, erabilera balioaren arabera baizik.

tzia horiek kapitalismoa gaindi dezaten arte. Hots, filosofo hauen arabera kapitalismoari ezin zaio kontra egin –edo iraultzaren bidez kapitalismoa eraitsi– baizik eta bere logika areagotu egin behar da, areagotze horretan kapitalismoak kapitalista izaten uzten dion arte. Proposamenak egun oso utopikoa eta are ez oso errealista dirudi, egungo kapitalismoaren indarra eta eragina kontutan hartzen badugu. Alabaina gure historia anitz eta diferentea gozatzeko jardunean ezartzen du proposamen honek politika ororen abiapuntua eta, maila horretan, egungo euskal politikaren egoerari erantzuten dio, oso teorikoki bada ere. Azken batean sozialdemokraziaren proiektu zaharkituari adabakiak jartzzen segitzeko politika porrotatutik haratago jotzeko aukera ematen digu. Proposamen honek zer itxura berezi har dezakeen globalizazioan, laster aterako den nire liburu berrian esplikatzen saiatu naiz: *Globalizazioak eta Erdi Aro Berria* (2017).

INDEPENDENTZIA EZ SUBORDINATUA: EZKERRAREN MUGA SOZIALDEMOKRATA

“Hobeto bizitzearen” ideologia independentista erdi-neoliberalak ez du gerorik, ezta sozialdemokraziaren proiektua adabakitzea helburutzat duen ideologia ezkertiarak. Are, euskal estatu buruaski batera ailegaturik, neoliberalismoaren eta kapitalismo globalaren indarrari aurre egiteko proposamen bat ez duen independentzia proiektu batek neoliberalismoak irentsita amaituko du (ikus Grezia eta Syriza). Gure historia enoratzen duen independentzia prozesu batek estatu itxuraz liberal baina azken batean autoritarioa eman diezaguke (edo gerra zibila). Pentsamendu historikoago, diferentzialago eta libidinalago bat jarri behar dugu martxan. Bestela independentzia subordinatu bat izaten amaituko dugu. Espero dut, ideia hauek garatuta, aurrerago beste liburu bat ateratzea: *Euskal ideologia: nazio etnikoa eta postnazionalismoa*. ■

BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN
ARTEKO HURBILKETA XUMEA BLA BLA BLA LA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
ALDAKETA NAFARROAN BLA BLA BLA BAL
BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT
BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545

www.argia.eus/denda - denda@argia.eus

**ARGIAren asteroko harpidedunak
doan jasoko du postaz**

